Euskararen egungo egoeraz (I)

Badira uste dutenek euskara ez dela gauza gaur egungo premietara gahindu ahal izateko. Pundu hontan, iraganak iragan, 1830. urtean Mondragoen egin ziren Gipuzkoako Batzar Nagusietara Agustin Pascual Iturriaga ernaniar irakasleak aurkeztu zituen ideiak oroitu beharra dugu berriz ere (zehaztasun gehiago nahi duenak ikus beza Euskera, XXIII, 1978, 135-144 orrialdeetan aurkeztu nuen lana). Lastima izan zen karlisten gerrateak eta Foruak ahultzeaz galzorira eroanaz eten zirela Pascual Iturriagak proposatu zituen elebitasunerako plangintzak. Gaurko denborak bestelakoak dira, baina ideiaren funtsa hor dago. Bere eritziz, ezinezkorik ez zen, eta gaur bertan ere ez noski, baina horiarako gure gogoa agertu behar.

Berak zioenez: "Erakeria da ustea hizkuntza bat bestea baino gaitzagoa dela. Euskarak ez du beste zer esanik hautsez betea beti bizi izatea besterik. Zurdapilla onak arrapatu du eta astin aldi ona emango dio(gu). Gero besteren batzuek, denborarekin, argitagik igortziko dute eta polituko".

Zer zen Pasucal Iturriagaren ideia, erromantikoen girokoa baizik?

Orain, zenbait politiko ezjakinek eta sasifilosofoak nazio hitza bera estadu bati erantsi nahi diote. Baltasar Gracián-entzat ordea, ez zegoen zalantzarik eta ezta Cervantes entzat ere. Hauentzat nazioak bai ziren Kataluña, Euskal Herria eta Galizia. Eta, gure Etxeberri Ziburukoak ere hala zekarren 1627an argitaratu zuen ***Manual debotionezkoa*** *zeritzan liburuan, "Gure natioa" esatean.*

Hemeretzigarren mendean, erromantiko mugimenduaren eraginez, herrien folklorea baliatzea etorri zen, populu, popular sentierak bilduz, baliatuz, indartuz, eta herriek beren nortasunaren alde, beren naziotasunari erantzunez, independentziaren alde jokatu zuten, hala jarraitu Europan Austro-hungaro imperioa bukatu arte.

Hala zetozten Iztueta eta Pascual Iturriagaren ekintzat, Iparragirren gorpuztua, eta garaiko politiko askok ere bazuten hortaz erakarririk. Gure herriak, beste zenbaitek bezala, ezin izan zuen bere buruaren jabetasunik lortu, zeren Xenpelarrek zion bezala, ez dugu arrazoirik guti garelako. Karlisten gerrateak ere ordukoak ditugu eta badute zer ikusirik norpere burujabetza horrekin. Esperantza galdu haiek, gaur oraindik, gure herriaren min.

Ase gabe gelditu zen egarrian dugu euskara eskoletara eroatearena ere. Geroztik, goiko agintariegandik laguntzarik jaso ez badu ere, eta gaztelerazko eskolak urteen joanean bere bidea egin badute ere, oraindik zauriak agerian daude, gure herriak —nere ustez zorionez— bere mintzaira jatorrari ez dio etsipenik eman. Bizirik dago, bizi nahi du, eta beharrezkoa zaigu egungo eta aurrerako bizitza moderno batera begira jarriaz.

Azken batean, zer da Europa, zer da Espainia bera, bere naturaltasunean, hizkuntza oroz osatua baizik. Pluralitate gabe ulertu ezinak, eta plurilingue bezala ez onartzera anaiarteko borroketara joatea.

Joan zen mendean euskarazko literatura indartu zen, Euskal Herria bitan banatzen duen mugaren alderdi bietan historian ezagutu zuen bultzadarik handiena ezagutu zuen gure literatur ekintzak. Batzar Nagusiak azkenaldian ohartu ziren nonbait hizkuntzaren garrantziaz. Ulibarrik egin zituen ahaleginak bere frutua lortzen hasiak ziren eta batzarretako azken agiriak euskaraz ere badaude.

Behar bada, hori izango zen laguntza ofizialik bakarra. Geroago Diputazioek ere zerbait egin zuten, bereziki auzoetako eskoletan. Hontan, Bizkaino lana handiago izan zen. Baian, garai hoietan, oraindik herriaren ekintzat ziren kasi-kasik laguntza bakarra.

Gure mende honen hasieratik politika ekintzak ere bizkortu ziren euskararen alde. Hontan, aitortu beharra da Sabino Arana izan zela lehen bultzatzaileetan serioena, alderdi politiko oso bat gure mintzairaren alde konprometituz. Agindua zorra da, eta konpromiso hartzearen ondorena izan zen alderdi hortako bazkideak euskararen errekuperazioa onartu beharra, eta era berean beste alderdiak alde edo kontra jartzera behartzearena.

Egia esan, Sabino euskaldunberri zen, gaztelera euskara baino hobeto zekiena, eta "garbizale" bidea hartzeaz, erdal usaia zuten hitzak baztertzeari eman zion eta hori izan zen bere hutsa, zeren ez baizen ohartu Axularrek, Kardaberazek, Mogelek eta bestek, erdararik ez zekiten euskaldunentzat idatzi zituztela beren lanak, edozein hizkuntzak literatura tradizioan oinarritu beharra duela, eta bere joera horrekin lehenarekin etetzeaz ondorio txarrak ekarriko zituela. Hala ere, bere asmo eta helburu nagusiak onak izan ziren. Hil edo bizi, zirt edo zart egin beharra genuen gure hizkuntzarekin. Bizi beharraren kontuan behintzat, lehenagokoen enplastuekin ezegoen ezer egiterik eta bera bezalako iraultzaile baten beharrean geunden. Gainera, abertzaletasunik gabe, ezin dezakegu askorik espero hizkuntzaren alde. Zori onez edo zoritxarrez, hori hola da Espainia eta Frantziako zentralismoek beren politikaz beste bideren bat hartzen ez duten artean.

Lehendabiziko autonomia eskaintzak eta itxaropenak 36ko gerrarekin ito ziren eta berriz ere, anitz urte larriren ondotik, behetik gora hasi beharra.

Kanpotik industriara zetorrenez, langile etorkinez eta bertakoen hazkuntzez, gure herria beteegi bihurtu zen; bestalde, eskolak ez ziren hazi neurri berean eta haurrak kalean geldituko ez baziren, guraso taldeak beren aldetik hasiak ziren eskolagintzan. 1958. urte inguruan, oroitzen naiz, Donostia, Bergara eta Eibarko zenbait guraso eta laguntzailek lehen aldiz jarri genituela ikastolak agerian, elebitasunez irakasteko. Elbira Zipitriak Donostian isilian zituenak hartu ziren oinarri, han bertan formatutako andereñoz, eta beste inongo laguntzarik gabe, beti itxiko zituzten beldurrez. Gure defentza bakarra, zera zen, itxitzez bazituzten. guziok bat batean haur euskaldun horientzat Udaletxeari eskolak eskatzea. Orduko egoeraren lekuko, hor dago ***Así está la enseñanza primaria*** *lana, 1969an, Gaur zeritzan elkarteak argitaratua.*

Gerra aurreko instituzioetarik, euskal kulturaz arduratzen zirenetatik, Euskaltzaindia izan zen salbatu zen bakarra. Eusko Ikaskuntzak, Diputazioen eskariz Lizarrako Estatutoa gertatzearen ordainak pagatu zituen.

R.M. Azkue eta J. Urkixo, erakundeon zuzendariak, ez bata eta ez bestea, apenaz arduratzen ziren politikaz; naiz eta biak eskubitarrak eta karlista joerakoak izan, alde guzietakoegandik errespetatuak ziren.

Eusko Ikaskuntzak, aipatu dudan "pekatuaz" gainera, Euskal Herriko Unibertsitatea burutzea zuen bere baitan eta horiegatik iduritzen zitzaien nonbait, frankisteri, erakunde "peligrosa". Euskaltzaindia besterik zen. Azkue bera eta bere inguruko zenbait euskaltzaindirentzat, herria bera zen hizkuntzaren jabegoduna, ez beste; alderdi politikoen gainetik zegoen zerbait zen herri baten hizkuntza eta denek errespetatu beharrezkoa iduritzen zitzaien. Beraz, ez zen "kalte"handirik sortu zezakean erakudea, eta, horrez gainera, itxurak azaltzeko beharrezkoa iduritzen zitzaien holako erakunde batek bizirik irauntzea, diru laguntza urri neurtuz ezerrezturik gelditzen zenez. Horregatik, oraindik orain ere, laguntza pribatuek sostengatzen dute Euskaltzaindia.

Instituzioak berekin dute elkarlanean arituz gizaldirik gizaldizko jarraipena. Etxekoek honen alde begiratu beharra dugu, kanpokoengandik ez bai zaigu faltako gure ahalegin guziontzako eragozpenik.

Eta ekintza iraunkorretara begira gogoan har ditzagun Pascual Iturriagaren kontseilua: "Berotasunak eta errabiak ez dute beiñere gauza iraunkorrik egiten".

Juan SAN MARTIN

Sobre la situación actual del vascuence, a la hora de encaminar hacia un bilingüismo, nos conviene recordar la historia, la experiencia del pasado. Para comenzar, por ejemplo, tener presente las ideas y consejos del hernaniarra Agustín Pascual Iturriaga, que desde sus experiencias de profesor presentó un informe a las Juntas Generales de Guipúzoca, reunidas en Mondragón en 1830. El no ponía dudas a una correcta implantación del bilingüismo en la enseñanza, ni de las óptimas posibilidades del euskara para tal aplicación, ni para el desarrollo de esta lengua para la vida moderna. Lástima que sus buenas ideas y proposiciones quedaran truncadas por las guerras carlistas. Tampoco el vascuence le parecía una lengua difícil, todo lo resumía a la dedicación y método. Según él: "es una necedad pensar que el vascuence es más difícil que otras lenguas. El euskara no tiene más achaques que el de haber vivido siempre recubierto de polvo. Está tapado de embrolloso sedal y hemos de darle una buena sacudida. Despues, con el tiempo, otros han de frotarle y abrillantarle para su embellecimiento". Así de sencillo se explicaba, y sus palabras parece que están dirigidas a las generaciones de nuestros días. Se ve que el problema no ha sufrido muchas variaciones, aunque algunos políticos pretendan plantear las cosas más problemáticas de las que son en realidad.

Aquellas ideas eran comunes al movimiento romántico que se iba desarrollando por toda Europa. Un movimiento que valoró la cultura popular, que se interesó por las literaturas de los pueblos, que reinvindicó las aspriaciones nacionales a lo largo del pasado siglo y que en consecuencia provocaría el derrumbamiento del imperio Austro-húngaro a comienzos de nuestro siglo, y Europa recobraría su vieja hegemonía de un pluralismo natural.

Los trabajos de Iztueta, Pascual Iturriaga, Chaho y otros, sin olvidar a Iparraguirre, promovieron aquel sentir general en nuestro país, hasta la política de Sabino Arana consistió en una continuidad para orientar a un pueblo que lejos de de alcanzar sus aspiraciones de libertad terminó por perder su derecho foral.

En el artículo en euskara se señalan el avance progresivo de las ideas de recuperación de la lengua vasca ddesde finales del siglo pasado hasta la guerra del 36, la represión y reacción de posguerra, y, sobre todo, se subraya la labor continuada de las instituciones, para terminar con otro buen consejo de Pascual Iturriaga que nos viene al caso: "de la fogosidad y la rabia jamás se puede construir algo duradero".

Teknika arabako zeramikan

Zeramikari buruzko aurreko artikuluan Arabako famili askok diruiturria ogibide honetan izan duela esaten nuen. Artesau haiek teknika ondo menderatu behar zuten heuren lanari irteera eman ahal izateko. Irabazpiderik gehienetan gertatzen den legez, lanik hoberenak merkatu hobea lortuko du kalitate gutxikoak baino. Zeramikan berbera gertatzen zen eta hau ederki zekiten egibide honetan zihardutenek.

Ondorango lerroetan eltzegindegiteako artesauek erabilitako lan-sistema nolakoa zen azaltzen saiatuko naiz. Ez dut uste zutabe hauetan izkutu guztiak azaldu ahal izango ditudanik. Bakoitzak bere maina bereziak izango zituen eta —beraz— ezina zait hemen agertzea. Dena dela, orohar, hari nagusia antzerakoa izango zuten denek. Eta hauxe da gaia.

Arabako eltzegindegietan erabiltzen zen lurra buztina zen. Eltzegindegira eraman aurretik gertu egin behar zen buztina eta horretarako ***iragazkinak*** *erabilizen ziren. Zer dira iragazkinak? Lurrean zabaldutako bi hosin, hodi batez batuta. Biak neurri desberdinetakoak ziren eta bata —gainekoa— sakonagoa zen. Honetara buztina betatzen zen uraz nahasturik. Buztina, arruntki, eltzegindegia eraikitzen zen herrian bertan aurkitzen zen. Eta artesau barkoitzak egiten zuen nahasketaren formula, atera nahi zuenaren arauera.*

Hosin sakonagoan buztinak eta urak itsaspen egokia hartzen dutenean bigarren hasinera —behekora— pasaerazten da masa, galbahe baten bitartez, honetan harri koxkerrak, zotzak... geldi daitezen. Bigarren hosinean lohiak hilabete batez —gutxienez— irauten zuen, eguzkiak ondo lehortu arte.

Lehia behin gertuz gero ***torneaketa*** *zetorren, eltzegindegian bertan. Ezagutzen diren ternurik zaharrenak zurezkoak dira, ia osorik. Ternua honelakoa zen: neurri desberdinetako bi kurpil ardatz baten muturretan jarrita, artesauaren oinaz kurpil haundia bultzatzean tornu osoa jiratzen zelarik. Denboraz, sistema hau gaurkotzen joan da eta azkenengo urteetan argindarrezko motorez higitzen zen tornua.*

Zeintzu dira torneaketan erabiltzen diren tresnak? Eltzeginek sarri diotenez, ***eskua*** *da lan honetan garrantzirik gehien duena. Eta ez dago zalantzarik. Gainontzeko tresnen balorea erlatiboa da.* ***Tiradera*** *dugu lehenengoa: zurezko pieza bain —igitai antzeko itxurakoa— eta eltzeari forma emateko erabiltzen zen. Larru zati bat eltzearen ertzak leuntzeko. Arabako zenbait tokitan kaxko izeneko katilu zati bat erabiltzen zen, hain zuzen ere katiluei itxura emateko.* ***Hari*** *bat beharrezko zuten eltzeginek pieza ternutik bereiztu ahal izateko. Eta ontziak apaintzeko* ***errazi*** *edota* ***karrete*** *koxkadun bat eukitzen zuten.*

Torneaketa nola egiten zen ideia egiteko, Enrike Ibabek Ullibarri Ganboako ***Nikolas Agirrebeitia*** *eltzeginaren hastapejaso ditu "Euskal zeramikaren hastapenak" liburuan eta ederki datozela deritzaidalako zilegi bekit hona aldatzea:*

" Buztina erdian jarri, behatz handiak oretan sartu eta beste behatzekin eutsiz, buztina ireki. Buztina tiratu, hau da, jaso. Ezkerreko eskuaz barrutik forma eman, baina behatz erakusleak bakarrik ukituz buztina eta kanpotik eskubiko behatz erakusleak. Segi forma emanez eta tiragailuaz behatzen aztarnak ezabatuz. Aurrez deskribatu dugun hariaz edota alanbreaz pieza plateratik apartatu. Taula baten gainean lehortzen utzi, lehenik itzalean eta gero eguzkitan. Oinarriari forma akabaila eman leunkailuz, pieza jadanik lehor xamartua dagoela".

Lortu dugu ontzia eta orain ***iragazkaitzea*** *dator. Ontziaren poroak itxi egin behar dira harek zapore txarrik har ez dezan. Beiraztadura egiteko beruna erabiltzen zen, Arabara —gehien batez— Jaengo Linaresetik ekartzen zutelarik. Harri forma zekarren berunak eta erabili ahal izateko eltzeginak errota batez baliatzen ziren, eskuzkoak nahiz aberaez eraginda. Beruna, estainu eta hareaz nahasten zen errotara eraman aurretik. Araban gehien erabiltzen zen esmaltea zuria dugu.*

Egosketa *da ondorongo lana. Arabako labeak planta laukikoak dira, goiera, batetik bestera, aldatzen delarik. Haundienak* ***Narbaitza-Ullibarri Ganboa, Elosu*** *eta* ***Narbaitza-koak*** *izango ziren. Ullibarrikoaren tximiniak 11 metro zeukan. Behin labea entziez betea, piztu egiten eta labeari —ia beti— iluntzean ematen zitzaion sua, keak auzokideak min ez litzan. Eltzeginak egosketaren egoera ezagutzeko ontziren bat aterako zuen labetik, katiluak batez ere, esmaltea nola zegoen aztertzeko.*

Labealdia amaitu ondoren ***hozdura*** *zeto-*